

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIAN ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEKO PLANARI BURUZKOA, BALORAZIO EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2005-2008

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Euskal Herrian Arreta Soziosanitarioa emateko Planaren balorazio ekonomiko-finantzarioaren gaineko txostena mamitu du. Txostena 2009ko uztailaren 24an onetsi da bertaratu diren Osoko kideen adostasunez.

Arreta Soziosanitarioa emateko Euskal Kontseilua 2003an sortu zen Eusko Jaurlaritzaren (Osasun, Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuetarako Sailak), Osakidetzaren, hiru Foru Aldundien eta Eudelen ordezkarienez osatua eta 2005ean Euskal Herrian 2005-2008 aldian arreta soziosanitarioa garatzeko Plan Estrategikoa onetsi zuen.

Plan honek arreta soziosanitarioaren eredua, jarduera esparrua eta moldea definitu eta balizko arreta-gai diren kolektiboak zehazten ditu eta bertan jasotzen diren hainbat ekintzari dagokionez kostu-eskema bat barne hartzen du, nahiz ez duen aipatutako kostuen gaineko kontrolik ezartzen, ez zerbitzu zorrerik jasotzen eta honek jarduera soziosanitarioen zehazgabetasuna dakar berarekin.

Honegatik guztiagatik, HKEEk mamitu duen lana izan da Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien jarduera soziosanitarioen ekonomia-finantza informazioa eskuratu eta aztertzea, inola ere Udalek egin ahal izan dituzten balizko gastuak aztertu gabe, informazioa laguntza unitate moten arabera egituratu da eta hiru Lurralde Historikoetako bakoitzari dagokionez, jarduera, kostua eta finantzaketa zehaztu dira.

Laguntza emateko unitateen finantzaketa eraginpeko erakundeen artean hitzarmenak gauzatuz egin da. 2007ko ekitaldiari dagokionez, erakunde-arte

hitzarmena duten laguntza unitateen kasuan, hiru Foru Aldundientzat gastua egindako gastu osoaren % 71,3koa izan da, Eusko Jaurlaritzak % 3,6 finantzatu baitu eta erabiltzaileek %25,1.

HKEEren txostenari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren, Osakidetzaren eta Foru Aldundi bakoitzaren arteko lankidetzak hitzarmenetan alde handiak daude zerbitzu soziosanitarioak eman eta finantzatzaren arauketari dagokionez; gainera, ez dago irizpide bateraturik hiru Lurralde Historikoekiko jokamoldean.

Txostenak jasotzen du Plan Estrategikoa nabarmen moteldu duela indarraldian zehar esparru soziosanitarioan onetsitako legeria berriak eta honenbestez, indarberritu beharra duela eta horretarako, zerbitzuen zorroa zehaztu behar dela, Jaurlaritzaren finantzaketa homogeneizatu eta beharrezko balitz, onetsitako arautegi berria egokitu.